

LOMCE eta HIRUGARREN MAILAKO FROGAK

Sortzen Elkartetik Nafarroako Gobernuak LOMCE legearekiko izaten ari duen jarrera salatu nahi dugu. Atzo bertan, Hezkuntza Departamentuak LOMCEk ezartzen dituen 3. mailako froga pilotoak pasatzen ari dituela jakin baikenuen.

Lehenik eta behin, LOMCE legearen ezarpenaren aurkakotasuna berretsi nahi dugu. Bestetik, legearen aplikazioa izkutuan egiten ari dela salatu nahi dugu, berritoki ere ez zaie informaziorik pasa ez ikastetxeei ezta gurasoei ere. Zergatik? Argi dutelako hezkuntza komunitatearen gehiengoa kontra dagoela.

Gogoratu behar dugu, lege honekin, froga hauen emaitzak publikoak egingen direla eta honekin ikastetxeen rankingak publikoki plazaratzeko aukerak ireki direla. Gainera gure testuinguru hurbiletik kanpo egiten diren frogak izaki, ez dute lekuan lekuko errealitatea kontuan hartzen. Argi dago tokian tokiko errealitateak ukatu eta zentralizazioa eta curriculum-aren uniformatasuna bultzatzen ari direla, ebaluazio froga hauek curriculumaren kontrolerako beste tresna bat besterik ez direlarik.

Ikasturtearen hasiera honetan emango diren egoerei modu egokienean erantzuteko ondorengoa proposatzen diogu hezkuntza komunitateari:

- Informazioa bildu eta bai hezkuntza eragileekin baita gainerako ikastetxeekin ere elkarbana dezaten.
- Heltzen den agindu bakoitzaren aurrean langile eta eskola komunitatean aurre egiteko moduak bila ditzaten ahalik eta adostasun zabalenarekin.
- Gure eskoletan neurri hauen aurrean eta orokorrean LOMCEren aurrean kontrako jarrera mantendu dezaten.

Honekin batera, azterketa 3. mailako tutoreek egin beharko badute ere, lankideen eta gurasoen babesa eta proba ez egiteko ahalik eta adostasun zabalena eta konpromisoa lortzen saiatu behar dugula uste dugu. Hirugarren mailako tutoreez gain, gainontzeko langileen nahiz gurasoen kopuru esanguratsu batek proba ez egiteko konpromisoa adierazten badu, probak ez dira egingo. Hau ezinezkoa izanez gero salaketa eta mobilizaziorako bideak jorratu behar ditugu. Eskola Kontseilu edo ikastetxeko erabakitze organoek ere, eskola bezala, azterketa egunean hartu beharreko jokabidea adostu beharko genuke.

Animo eta elkar gaitezen nahi eta behar dugun euskal eskola berria sortzeko! Guztion artean lortuko dugu!